

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

236n. zenbakia
urterilla 1999



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**ALLENDE'KO AMA
(EZKARAI-ERRIOXA)**

EUSKALERRIAN EUSKERAZ



CT

1998-99 I KASTU RTEA

OGEITAMAIKAGARRENA
BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 18.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22
BILBAO

31² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

3 NIVELES Y CONVERSACION

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 18.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

< Bilbao Bizkaia Kutxa

EUSKERA

Humboldt eta Euskalerrria'ren Sorginkeria

—Guillermo Humboldt iru illebeterako etorri zan Euskalerrri'ra eta urteak pasa zituen gure artean.

—Nor zan gizon ori?

—Gizon au Alemania'ko Posdam errian jaio zan 1767'ko Ekainaren 22'an.

—Doistarra da, beraz?

—Ekonomi, arkeologi eta filosofian saiatutako jakintsua da.

—Ba al zekien euskeraz?

dres'ko burnia merkeago gertatzen da Gaztelania'n Bizkaikoa baiño.

(Guillermo de Humboldt y el País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Publicación de la Sociedad. San Sebastián. 1925. 56 orrialdean).

—Euskeraren etorkizunari begira, zer diño?

—1801'garren urtean Euskera galbidean zebillan. eta orrela ez ebala mende bat iraungo, alde guzietatik arerioak ebalako; aundikiak eta euskal jakintsuek ez zutelako aintzakotzat artzen euren izkuntza. (Aitatutako liburuan 121 orrialdean). Unamuno'k au iraku-

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

—Bai bazekien euskera eta beste izkuntza pillo aundi bat be. Linguistika gaian oso zan iaioa.

—Noiz etorri zan gurera?

—1.799 urtean etorri zan lendabizi eta 1.801'ean bigarrenenez.

—Zergaitik?

—Bere amak ekarrita etorri zan lenengo aldiz iru illabeterako eta Euskalerrriakin maite-minduta gelditu zan.

—Eta, gero zertara?

—Euskerak eta gizarte-legeak eraginda; erri xearekin ar-emanetan jarri zan; baiña, baita be Astarloa, Mogel, Larramendi eta beste euskal jakintsuekin.

Eta, bereiziki, zer?

—Geure euskal erriarekin txundituta joan zan, emengo gizartegiroa ikusita gero.

—Euskalerrria'n bakarrik ibilli al zan?

—Emendik Gaztelerrri'ra igaro zan eta bi erriak eza-gutu ondoren, ona zer dion:

Gaztelerrria'k gorroto dautso Euskalerrri'ri bekaitzez, inbidiz, eta Bizkai'ko burniari zergak imiñi dau-soz, bien arteko mugan, aundiago ezin eta olan Lon-

mita eukan eta, eun urte beranduago, berak be beste orrenbeste esango dau: "eun urte buruan euskera galduko da".

Humboldt'eri buruz geiago jakin nai dabenak ona nora jo bear daben: Eusko Ikaskuntzak Separata bat argitaratu eban izen-buru onegaz: "Guillermo de Humboldt y el País Vasco. Conferencia por Arturo Farinelli; traducciones del "Diario del Viaje Vasco 1801" y de "Los Vascos" por Telesforo de Aranzadi; "Bocetos de un Viaje a través del País Vasco", traducción y prólogo por Miguel de Unamuno". (Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián) 1925.

—Eta lan onek nundik artun dabez Separata bat ba'da?

—Ona nundik: R.I.E.V. Tomo XIII, 1922. Nums. 3 y 4; Tomo XIV, 1923, Nums. 2 y 3; Tomo XV, 1924, Nums. 1, 2 y 3. (Palacio de la Diputación de Guipúzcoa).

Eruaik pardel au etxera.

– Eruaik euk, nai ha'dok. Aita ikusten noioak...

Bela-ontzia agertzen zan bakoitzeko. atsegiñ izan oi zan aitaren kamarotean sartzea: beti ekarten eban zerbait ao-gozagarri edo begien-pozgarri. Lenen agertzen zanak, aretxek aukerarik onenak.

Erramon, Manuela-pailebotaren patroia, dendatik goiko bizitzara igo da eta lenengo lana, orman zintzilik dagoen ordulariaren sokari eragitea, gelditu ez dedin. Beko dendatxoaren zuzendaria, bere emaztea da.

Onek, senarraren gustora, itxas-kabra aundi bat erosi dau saltza berdian imintzeko eta postrerako arto-sopa ederrak esne askorekin, eta. esnea agortu arte, egosi. Sekulan orrela-ko gauza goxorik...!

– Zer dozu, Erramun, aurpegikera txarra dakartzu gaur!

– Bai Mariñasi, gerriko miña daukot...

gerriko miñak eta gultzurrunak ondo ez, iru egun barru gelditu zan Mariñasi alargun. Ez partilla eta ez alogera, ez barkurik eta ez Seguridade Sozialik. Ezer be ez. Bai, zazpi ume gonetarik elduta... Eskerrak dendatxuari.

Bere Erramon'ekim pozarren bizi zan: iru egun etxean eta beste ogeita iru itxasoan... Alkarte ederrak eta ondoren ames gozoak... Bañan, izan be, amesetarako astirik ez eukan; ain-beste ao zabalik eguneroko ogiaren zai...

– Nik ez neuke nai zapatero batekin eskontzerik...

Zergaitik, Mariñasi?

– Beti, gau eta egun alboan... Obea da itsaz-gizona: etorri, poztu eta, aspertu barik, aldendu, gero osterata etorteko... Orixe da egoerarik ederrena.

Pozik bizi zan here egoera orretan, eta, bat-batean, guztiak amaitu. Eskerrak dendatxuari. Danetarik eukan bertan: urdaiazpikoa eta makallaua, gantzak eta urdaiak, olioia eta koipea, ogia eta lukainkak, albarketak eta txapiñak, zapatak eta bortzegiñak. egurrezko txankloak eta ille-matasak, abarkak eta patatak, lurrezko ontziak eta kaña-pattarra...

Aizkenerako, prestamista be bai:

Mariñasiña, préstame cinco pesetas.

An ekartzen eutson "Ferrolania"k bere gizonaren zapatak

JF 0011111. V-V. 001. 1. 1. 1. 1.

lakin gantza zatitxoak, tipula oreganoakin eta, leguntasuna emoteko, arroz apurtxo bat ondo egosia...

Tipula gorri ura zan neure kalbario-mendi: tipula gorri asko, makinaz oso xeetua... Ori egokitzea zan neure lana... Arazoa lana baño geiago. Zenbat negar egiten neban arazo ori amaitzerako! Aurpegia be estaltzen neban estraza-paperakin, bi zulo begien parean egin ondoren. Dana alperrik: negar da negar... Ordañetan, amumak emoten eustan, txarriaren este lodiakin egiñiko olkirik ederrena... Geroztik ez dot alako gozorik iñoz be jan.

Odolez esteak bete; eltze aundietan egosi eta amabi-amabietan, dendako mostradorera. Jende-multsoa erosteko zai- zai; bai ba, goizetik etxe-atarian, txerria esegita ikusten eben da... Neure bazkarirakoa bakarrik gelditzen zan saldu barik.

Izekok eskatzen eustan zatitxo bat eta, borobilla zanez, muturtxo bat emoten neutson, txapeltxu baten antzera. Ez geiegi, ez orixe! Zelako bazkari atsegiña...!

Bien bitartean eta kale-erdian, uliak erre txerriari arakiñak; ondoren, berriz, zatitu: urdaiak, atzeko bi jamoiak eta barruko gantza-zati bat, gatzetan imiñi, solomoa kendu jateko; beste okela guztiak eta urdai-ertzeak, txorixuak egiteko... Aragi guztiak ebagi eta makinaz txikitu. Aurretik salmuera egokia egin, ura, gatza eta berakatza naastean dirala, pipar-txorixuen sukuagaz.

– Ama, amar makallau-buztan dagoz kajatxuan.

– Gezatuko doguz eta biar imiñiko tipula, pipar-autsa eta patatagaz.

Amak makallaua be saltzen eban eta iñork ez eban nai amañaren buztanik eta gordetzen ebazan kajatxu batean. Bein amar edo amabi zati ezkeroz, patata batzuekin egozten ebazan. Gauza goxoagorik...!

Amak imiñitako janarietatik iru onek ziran neretzako goxoenak: makallaua patatakin, patatak saltsa berdian eta arto-zopak esniagaz. Sukaldea eukan denda-barruan, tximiñirik bage eta egur-ikatzagaz piztuten zana. Keiak dendatik irteten eban kalera, tabernetan bezala.

Dendatik sukaldera, iru minutuetatik bein, joaten zan ama lurrezko kazuelak astintzera: ikututxu bat emon eta dendara barru... Ikutu onek. egur-ikatzak, lurrezko ontziak... ez dakit zerk ematen eutson janariari alako leuntasun goxo-goxoa...

Atuna eta solomoa erreta, itxaskabrek saltza berdian be. onak zirian; baña, iru gauzatxo oiek bezin onik ez. A, bai, ba da beste zerik be, odolosteak; bañan oetatik neuk bakarrik jaten neban morzilla potolo bat; besteak, saldu...

Geure bizitza dendan egiten genduan: maitxo borobil bat erdian eta sillatxu motzak inguruan: goizeko zortzietatik gaueko amaiketara. bertan lasai. Amaikak jota igoten genduen goiko bizilekura, bakoitzak bere kandela biztua eskuetan eba-la... Amabietan asiko zan serenua kalia gora, bere makilla luzeagaz adokiñak, pausoaren neurrian. joten eta orduak kantatzen: "Las doce y sereno". "las tres y txingorreando"... Makillaren puntan lantza bat... Bildurrez. burua sartzen neban mantapean... Zazpi t'erdietan jeiki eta dendara.

Ipar-aizea kalean zear, ezpañak zartatzekoa.

Mariñelaren bizi-moldea larria zan. Goizeko amaiketan agertzen ziran dendan etxeko andrak:

– Mariñasi, emon amar xentimoren gantzak.

Mariñasik gantza-zatitxu bat ebagi eta emoten eutsen eltzearen aberasgarri. Leioetan ikusi oi ziran moroak sika-tzen, erditik egurtxo bategaz zabalik, iparraren eskuetan dantzan... Gose-aldian patata eta pipar-autsak in jateko...

Molla baztarretan txalopa aundiak usteltzen asita zeuden; curen orde, "baporak"... Arraunlaririk bear ez... Krisisa aundia eta gosetea... Krofadirentzako lan aztuna, laguntzak emoten...

"Santa Katalina noiz da? Bixigutzako goiz da". Portua bixiguaren zai. Alako batean. Kofradia asi da bere neskatoak etxerik etxe bialtzen, arrantzaleak esnatzeko. Arrantzalea daukagu tellatuean, eta emen agertu da goizeko iruretan, ate joka deiez:

"Sabiño, Jainkoaren izenean mezia entzuteko". Bai, gaur igandea da, eta Meza ondoren irten dabe itxasora. Minutu gutxi pasa dira deia entzun ta gero eta badator Sabiño iske-lleran beera dinbi-danba. egurrezko klanklo aundiak oiñetan.

Egunero bezela. gaur be, portura joango gara zenbat bixigu dakarren "bapor" bakoizak ikusten. Zer kolore gorrixka eder brankapean zabaldua!

– Zenbat?

– Berrogei.

– Irurogeita bost...

Bakoitzak bere suertearen neurrian.

Bai baña, zergatik Kaximiro'k ekartzen dau geien?

– Suerte geiago daualako.

– Beti? Eta, suertea bakarrik al da?

Utzi ditzagun alperrikako eztabaidak eta adi-adi egon, zertan dabilzan arrantzaleak... Bakoitzak bixiguri ederrena bere otzaratxoan sartzen. Euretatik bat baño geiago. zuzen-zuzenean tabernara. Ango keia eta zaratia! Aulkian zabal-zabalik, ukalondoak maigañean, bixigua noiz erreko zai... Bai, ba, goizeko ordu txikietan oetik jaiki, egun osoan otzardaraz ibilli eta orain, tabernaren epela, goxoa. atsegingarria eta bixigu zoragarria aurrean. barruko urdailleko zera guztiak garraxika, goseak amorratzen... Bixigu laztangarria begien aurrean, santiamen baten barrura irentzia...

– Bai, gizon zantarrok, eurok bapo jan eta emaztea eta semea-alabak kurtiñapetik tabernako keiak ikusten eta gosiak iltzen...

Gure ama sutu egiten da. An dauko berak "Book" gorri bat gizonak Ingalaterratik ekariia, orri geienak izenez eta lumeroz beteak.

– Ama, onek zer dira?

Zorretan utzitako gauzak.

Nork?

– Ke-artean bixigua jaten dagozan orreik...

Antxobiak ordainduko dauz udaberrian.

– Nai dan beste diru artzen dabe, umiak be kabanara doazelako; baña, orduan be izango da zer-edo-zer...

– Zer izaten da, ba?

Kerardo Konpiterentzako izaten da zapria: aren kajara doiaz dirurik geienak; bañan, zorrak ordaintzeko afiziñorik ez, eta amen dagoz sekulan sekulotarako...

Amak arrazoi eukan: Kerardok geure denda aurrean. parez-pare, eukan bere denda gozokiz betea. Negu osoan andik pasa, lerdea dariola ezpanetatik ainbeste gauza gozoai hegira eta patrikeran diru berea dagoela, neska ta mutiko, andra eta agure danak harrura, sardako antxobia lez... Osto gorridun "Book" onek historirako balioko dau egunen batean, arrantzaleen egoera larria ezagutzeko, baita jokaera be: dirua errez etortzen danean. errez joaten da...

Negu aldean, amabostean bein, iltzen eban txarritxua amak. Sutegien inguan ba ebazan bi arrizko aska aundiak bertan gazitzeko urdaiak, gantzak eta permillak.

– Txotxo. joan kanpandegira eta esan Gaztiña Gorringo'ri etorteko biar.

– Noizko, ama?

– Goizeko hederatzietarako.

la nor zan Gaztiña Gorringo? Baserri zaartxo batean bera bakarrik bizi zan andra oso zaar bat. Neure amar urteko begientzat, oso oso zaarra eta zimela; gurdi-bideak alako arrastoak eukazan aurpegian: uleak buruko zapi beltz hatean gordeta: txikia eta okerra; sereno mozko baten abotsa... Ni bildurrez joaten nitzan. izkutu batean sartuta zegoen aren baserrira.

– Dan dan.

– Nor da?

Mariñasi'ren semea.

– Zer nai dau Mariñasi'k.

– Txirrikiei gatz emoten joateko biar.

– Joango naz. (Orru)

Arin-aranga urtete neban andik: arnasia galdu arte, gelditu barik. Sartuko zan bodega-barruan, sutegiaren alboan, gatzok emon arte. Ango permillak atarian egoten ziran esegita udaran, neguko makalluen orde. Bein batez, a urdaiazpikoa ikusita sartu zan gizonezko bat dendan, onela esanez:

– Mariñasitar sur-aundiok ez dozak txarto bizi.

Ez txarto eta ez ondoegi: atesuan beti, ogia palta ez ba'zan, tomatia palta... Baña, inguruan ainbeste bear gorri ikusita, geure suertearekin conprome. Portuetan, baporak zirela medio, egunsentia asita zegoen. Laister agertuko dira "motorrak", itsasontzi ederrak, bajurako bakarrik ez zirenak. Gran Sol'era be joango zirenak, baita makallautan Terranoba aldera, gure antxiñako arrantzaleen antzera... Balea euren da bakar-bakarrik

ARRINDA TAR ANES

1998

ARGI-UNEAK

NORMALKUNTZA ALA ERREZ-KUNTZA?

Saltza guztietan sartzen dabe Normalkuntza.

—Aspaldiko okerrak zuzentzea al da ori?

—Euskerari aspaldian imiñitako ostopoak or daude.

—H'a al da ostoporik aundiena?

—Euskera asko zailtzen du eta arri-koskor ederra euskal-bideetan, erdi-erdian imiñiak eta oso arduraz zaindua.

—Normalkuntza baño ez al lizake oba, Errezkuntza?

—Baña, 25 urtean zear ainbeste izardiz bustitako arri eder ori nolan kenduko dabe ba?

—Egon gintzan, 50 urte luzeetan, arri eder orregaz bidean ostopo egin barik, ba! Zergaitik imiñi dabe, sendo erroturik, bide-erdian?

Iraultza baten gomutagarri da eta kontuz orreri ikututeagaz; oba dozu zeure burua itxaso aundira bota, Euskera arloan itota zagoz-da. Ez dozu ezertako be balio.

—Zer, ba, Ostopozaindia al daukagu ala.

—Alan emoten dau.

Oba leukie ostopoak kendu, euskal-izkuntza erreztu, erriak egin eta sortu daben berbia zaindu...

—Asieran esan eben: Ez dogu atzera-martxarik. Eta, kito.

Beste arek esan ebana: Geuk ikasi dogu eta ikasi...

Eta, Euskeraren ona?

—"Or konpon, Mari Anton".



begira, nola esan diteke "Ara Euskalerrri" Euskalerrrian ba'dago...

OXFORD, HAYWARD ETA EUSKERA

—Jack Hayward'ek bi itzaldi emon dauz.

—Nun eman dauz?

—Euskalerrria'n: Bilbo'n eta Iruña'n.

—Eta, nor degu jaun ori?

—Oxford'en dagoen Institutu baten buruzagia.

—Zertan diardu Institutu orrek?

Europa da beuren lanen elburu eta Oxford'en dago talde ori eta Euskera irakasleak bear dabez Oxford'ako.

—Euskera, Euskara eta Uskara bada zer edo zer.



PICASSO'REN EL SUEÑO

—Zer da Picasso'ren El Sueño?

—Barak egiñiko lauki bat, New York'en saldu dana.

—Zelakoa da?

Ez aundi eta ez txiki-txoa be: metro t'erdia bat luze.

Zenbatian saldu dabe?

—Zazpi milla millo laurleko edo pezeta.

—Orrenbeste Bilbo'ko

Santiago katedralak be ez dau balio.

—Katedrala egiten kostako zan geiago Picasso'ren laukia baño... Gauza batek balio dau geiago.

Zerk?

—Brasil'eko fubolistak.

—Diruaren mundua zoratuta dago.



GAUDI SANTU-BIDEAN

—Ez nuen uste arkitetorik zeruan egongo zanik.

—Arkitettoa da bat eta konstrutorea beste bat.

Biak antzeko izango dira.

—Ez, ba; emen dozu Antoni Gaudi aldara bidean.

—Nolan liteke?

Reus'en jai eta Barzelona'n il 1926'garren Ekainaren 19'an. Lurperatu, berak egiñiko Sagrada Familia ren lurpeko elizatzooan eortzi eben.

—Nork eskatu dau arkiteto ori aldaretara eramatea?

—Katalunia'ko Gotzaiek 1992'garren urtetik ona; baña, aurretik, aren bizitza arakatu daben injiniero, arkiteto, eskultore sail batek artu eban asmo ori. Eta, aurrera doaz guztiok bat egiñik.



ATUNAREN BURRUKA

—DEIA'k ekarri dau, atuna dala-ta, gataska eta burruka izan dala Ondarrabi eta Endaia'ko arrantzaleen artean.

—Ori negargarria dok.

—Zer? Atunaren burruka?

Ez, euskaldunen arteko burruka, baizik

—Izan be, erdibituta gagoz betidanik...

Bai, erromatarrek izan ziran gure lenengo erdibitzalleak, Pireneetako gallurrean gure muga ipiñi zutenean...

Arrezkero emen gagoz tonto-tonto, erdibituta.

Arrezkero bi milla urte pasa dozak eta aizkenerako geuk pe bi erri garala sinistu.

—Iparragirre berak be zer egin eban?

Txo, Iparragirregaitik gaizki esaka ez asi...

Iparragirre bere garaikoa zan eta euskaldunen ezaguera osoa ez eukan, bestela ez eban kantatuko: "Endaian nago txoraturikan / zabal zabalik begiak / ara España lur oberikan / ez da Europa guztian".

"Ara Euskalerrri" esan eban.

—Geuk bai esaten dogu ori, baña berak Endaia'tik Irun'era

ESKLABUAK SALGAI



—Orain be, orretan gara?
 — Alan dirudi.
 — Zenbatean bakoitza?
 — 100 dolar (15.000 pezta).
 Ez dira galesti. Nork erosten dauz?
 Suiza'ko ONG kristiñau batek.
 —Zertarako erosten dauz?
 —Askatasuna emoteko 1985'ean asi
 zan eta arrezkero 800 erosi ditu.
 Sudan'en gertatzen da salketa au.

Argazkian ikusten dogu eroslea eta
 saltzaillea; inguruan, berriz, 132 esklabu, geienak neska eta
 mutil gaztetxoak. (Vida Nueva: Otsailak 21, 1998).

DROGAREN INPERNUA

—Madril'eko Vallecas auzoko zortzi parrokiek bere irrin-
 tzia jo dute, bertan zer gertatzen dan munduari erakusteko.
 —Zer da ba, zer ori?
 —Bost milla persona, geienak gazteak, pasatzen omen dira
 bide aietatik, eguneroko drogaren billa.
 — Ez dira gutxi.
 —Drogaazokarik aundiena ei da. Izena ere dautsoe
 bide aiei: La Ruta de la Muerte eta El Camino de los Muertos.
 Merkatu ederra!
 Ezin ei dabe iñork burutu, ez Parrokiek, ez Caritas 'ek...
 —Eta, Madril'go agintariek?
 —Ez entzun eta ez ikusi.

MARIO CONDE, ROLDAN ETA MANDO-EULIAK

Irakurri dok zer gertatu dan?
 — Lau urterako kartzelan sartun dabela lapurtxo bat?
 —Orixe: millatxu peseta batzuegatik, lau urteko zigorra
 eta bestelako arrain-marrajo onek, milloika ta milloika ostu
 ondoren, kartzelan ate batetik sartu eta bestetik atara...
 —Nire attitta Bartolo'k arrazoi eban.
 —Zer esaten eban, ba?
 Gizarte onetako legeak, armiarma-sareak bezelakoak zire-
 la: eltxo txikiñak arrapatu, bai; bañan, mando-eulirik atrapa
 ezin, sarea apurtuten dabelako.

LENENGO JAUNARTZEAK ETA COPE

—Udaberriko fruitua dira Jaunar-
 tzeak.
 —Makiña bat istillu sortzen da
 inguru orretan.
 —Daoneko keskaturik nago zer
 orekin.
 Zer, ba?
 Gure Pinpilinpauza laister izan-
 go da orretarako prest.



Geuk be etxean badogu Kirkitxo bat eta bere lengusiñak
 onelan idatzi dautso:
 Kaixo, Kirkitxo, nere nebak dio Lenengo Jaunartzea zora-
 garria dala, egiten doutsue erregaloak ugari, patiñak, bizikle-
 tak, eskumuturreko erlojuak eta Cope'ri idatzi ezkeru, arek be

sekulako doaiak egiten dauz, zure izena eta noiz egiten dozun
 esan bear, zoragarria.
 — Eta, Cope ori zer da, Goikokale bezelakoa...
 —Ez da Telebista Madril'go irratia, baizik. Naiko txepela...

ALARMA ITALIA'N

— Alarma jotzen asi dira Italia'n.
 —Zer alarma gero?
 Famili geiegi ari dirala kanpotar umetxoak ekarri naian.
 Ori ona da.
 Geiegizkoak danak dozak txarrak eta agintariek uste dabe
 azpjoko bat dagoela arazo orretan.
 —Zer azpi-joko egon bear dau umetxo bat estranjeritiek
 ekarten?
 — Azpi-joko beltza, ikaragarritzkoa: Susmoa artuta dauka-
 te, ez ote diran ari umetxoak ekarri eta euren gorpuzkiak tras-
 planteetarako saltzen...
 —Ori eziña da. Ezin liteke orrelako astakirtenik egon...
 —Diru-gosea duenak, diruagatik edozer gauza egin daike:
 Ez dagoela Jainko eta Diruari batera serbitzerik...

EZKONTZARAKO ZORION-MANDAMENTUAK

—Ezkontzan zorion izate-
 ko, arau batzuek
 bete bear dira.
 —Zenbat?
 —Pillotxoak.
 —Bat'?
 Alkarregaz ez asarratu
 biok batera.
 —Bi?
 —Etxea sutan ez ba'dago,
 ez alkarri garraxirik egin.
 —Iru?
 Alkar-burrukan batek ira-
 bazi bear ba'dau, laga besteari
 irabazten.
 —Lau?



Lagunari kritikaren bat egin bear badiozute, maitasunez
 egin.
 —Bost?
 —Joanik ziran okerkeriak, ez gogora ekarri.
 —Sei?
 Zatar jokatu bear ba'da, joka edozeñekin; baña, ez lagu-
 nakin.
 —Zazpi?
 —Ez lorik artu, eguneko pakea egin barik.
 —Zortzi?
 —Alkarri berba goxoaren bat esan gabe, ez loak artu.
 Bederatzi?
 Okerra egin ba'dezu, aitortu ezazu eta bakarmena eskatu.
 —Amar?
 —Estabaida asteko, bi bear dira eta oker dabillenak egiten
 dau barbarik geien.

BARTOLO ARROPAINGO
 31-XII-1998



EUSKAL-ERRIA



Jentillen Etorrera

- Zer da Jentillen etorrera?
- Ataun'en egiten dan antzerki bat.
- Nork egiten dau antzerki ori?
- Talde batek erriaren laguntzarekin.
- Noiz?
 - Azillaren 9'an. (Diario Vasco, 8-XI-97).
- Zertan dago antzerkiaren kaka?
- Mitoloji gaiak alkartzen dauz.
 - Zer gai?
- Pillo bat: Basajauna, Jentillak, Tartalo, Mikelats, San Martin Txiki...
- Orrek perretxiko arrautz-opilla emoten dau...
 - Perretxiko onak izan ezkerro, ederto; baña, euren artean pozoidunik ba'da edo-ta arrautzak salmonellaz kutsuturik ba'dagoz, txarto.
 - Adierazpenik egin bear da antzerki onetan?
 - Mitolojia ez dala istori zeatz bat, zenbaitetan istorian oñari luze bat izan arren.
 - Baña, D. Joxe Miel'en istorioak omen dira?
 - Mitoloji bezela artzen ditu eta ez istoria bezela. Baña, nik gai naasi orretan, istoria sartu nai dot.
 - Zer? Zu D. Joxe Miel baño geiago al zera ala?
 - Ez nintzake tonto-lapiko txikia izango, orrelakorik usteko ba'neu; baña, ni aregaz sei urte ibilli nintzan ar-emanetan...
 - Bai, zu ikasle eta bera irakasle...
 - Bere aotik ikasi nituen mitoloji-gai oiek eta geiago. Gañera, ogeita amar urte baño geiago igaro dira, nik Erroma'n, dotoretisis irakurtzean mitoloji-gai onek erabilli nituen, euskaldunen uzkurtz-istoria egiteko...
 - Zuk gauza berberak aide batera eta bestera esaten dituzu; lenengo ezetz eta gero baietz.
 - "Distingue tempus eta concordabis jura": Mitolojiak argi eman lezake, arkeoloji lan bat argitzeko; baita naasteko ere ondo erabiltzen ez ba'da. Ataun toki egokia da gai oiekaz antzerki bat egiteko, arkeolojiz beteta dagoelako; baña, antzerkia ez da istoria.

- Ori inuxente batek be ba'daki.
- Antzerkia eta mitolojia istori biurten dabezanak be ez dira palta baztarretan.
- Emon eidazu argi-apurtxo bat.
- `Begira begira, ez egon albora begira' esan eutson iji-tuak basarritarrari, eta bien bitartean asto itsua saldu... Nik ez daukat asto itsurik zuri saltzeko asmorik; baña, begira zuek pe: Jentillak badaukie beuren oiñarria euskaldunen istori zaarrean. Izan ziran gure artean gizaki oiek sortuko ebezen gertaerak Ataun bertaraño elduko zirenak.
- Garbiago, mesedez!
- Geure mitolojiko Jentillek mendi-tontorreko gazteluetan bizi ziran eta urrezko gorua eta oi-gañekoa, urrez betetako idi-narruak.
- Alan esaten dabe ipuiñak.
- Garia ba'eukien eta ogi zuria jaten eben; sutegietan burnia lantzen neurri-gabekoak ziran.
- San Martin Txiki'k garia arrapatu eutsen eta burniaren templea be bai.
- Orra Jentillen lau gauza berezi: Goiko gazteluetan bizi, urrea ugari, garia eta ogi zuria jan eta burnia lantzen abillanak.
- Bai, ori alan da eta, zer?
- Kristo jaio eta 1.500 urte aurretik izan zan erri bat Europa ipar-aldean eta ego-alderuntz egin zuan eguzki-billa eta Europa'ko toki guztietan zabaldu zan, errien kulturak errez.
- Euskalerrri'raiño eldu ziran?
- Orreaga'tik sartu ziran Iruña'ra. Andik beso batek eskubira eta Sakana'n sartuta aurrera Araba'ko lautadan zear; beste besoak, berriz, egora jo zuan Iber ibaiara eta errekan-gora Napparroatik Araba aldera. Leku defenditzeko egokiak ikusten ebezenean, itunez edo ezpataz, eurentzako artu. Pakean ez ba'zan indarrez.
- Emengoek ez al zuten ezpatarik, ala?
- Bai, baebezen, arrizkoak eta alde batzuek, kobrezkoak; kanpotarrek, berriz, bronzekoak eta brontzea lantzen nagusi ziran. Brontze orregaz menperatu ebezen, arrizko eta kobrezko armak ebezen erriak.

– Zer erri eta noiz?
– Gurera laister etorri ziran: Jesus jaio baño 1.300 urte lenago Laguardia'ko La Hoya erria sortuta eukien. Araba eta Naparroa'ko lur-alde geienak artuta eukezen eta euren gaztelu-arrastoak eun tokietan baño geiagotan daude. Ez dirudi Gipuzkoa eta Bizkaia artu zituztenik. Etxarri-Aranaz'etik beera, beuren sudurrak agertu ebezen Ataun'go ertzean...

– Eta geroago?
– Europa orretan bertan, aurrekoen ondorengo beste erri bat sortu zan: Kelttoi erria (griegoz). Zelta erria (latiñez), brontzea utzi eta burnia lantzen ekin zuten, baita maixutasunik aundiena lortu be: arma ez-ezik, baita lanerako tresneri guztia asmatu zuten, oraindik gure tallarre zaarretan erabiltzen diranak. Eta euren aurrekoen bideetatik, Orreaga'n zear, gureraño eldu, gazteluak indarrez artu; burnizko ezpata gogorragoa bait da bronzeko baño. Euskaldunen-tzako orra nagusi berriak eta ez bakarrik Araba eta Naparroan, baita Gipuzko eta Bizkaia'n be.

– Eta, zelan dakizu ori'?'
– Aien gazteluak aurkitu dabez arkeologoak. Orain berroita amar urte ezaguna zan Marueleza gaztelua Nabarniz'en. Arrezkeroz topatu dabez Gernika'ko Luno'n eta Mungi'ko Berreaga'n; eta geiagoen billa dabilta arkeologoak. Gipuzkoa'n be berdin gertatu da: Tolosa gaiñean, an dago D. Joxe Miel'ek 1956'garren urtean aztartzen asitako gaztelua. Arrezkero Andoin'en topa dabe beste bat Buruntza mendian, eta beste bi Deba ibaiean: Muru-gain Aretxabaleta'n eta Muru Elgoibar'en. Beste asko agertuko dira. Arkeologoek eten gabe ari dira azterketak egiten geure mendietako gaillurretan.

– Eta, zer ataraten dozu ortik?
– Europako erri aiek eukezen lau gauza onek: gazteluak, urrea, garia eta burni-langintza, geure ipuiñetako Jentillanak dirazela.

Orretan arrazoi dozu.
– Jentillen ipuiñak badabe istorian zear oiñarri bat, esandako lau gauza oneik, eta euren jabeak menpean euken Euskalerria. Ataun'go ipuin batean, orraitio, ibarretako kristauek goiko Gaztelu-berrikoen aurka jeiki ziran, eta ez zuten etsi jentillak San Adrian'go zulotik Araba'ra bota

arte. Etorri be, andik, Naparroa eta Araba'tik, etorri bait ziran europatarrak Gipuzkoa'ra.

– Eta, kristautasunak galdu al zituen, gaztelu, u'ire, gari eta burnia eukezen europatar geure menpetzailleak?

– Ipuiñak alan diño; bañan, ez, arkeolojiak. Onek diñoena auxe da; erromatarren etorrerakin galdu zirala.

– Eta, zerk galdu ebazan?
– Europar erriek geure mendi-gaiñetako gazteluetan bizi ziran menderik-mende eta erromatarrek ibarretik ibarrera eldu ziran, bide zabalak egiñez, bizia beeran sortuz, erri eta uriak ibaia ertzeetan jasoz; orrela, arresiz inguratutako goiko erriak, (gazteluak), alperrikakoak gertatu ziran, biziagandik urrunekoak, eta bertan beera galdu ziran; galdu zirala, haiño.

– Eta, kristautasunak zer ikusirik ba'dau?
– Erromatarrak gurera etorri ondoren, (erri aiek galdu ondoren), bosteun urte baño geiago bear izan zituen kristautasunak gurean indar apurtxo batekin agertzeko. Bosteun urtetik gorago utsune aundi bat dago bien bitarte orretan. Beraz, Kristo jaiotzerako erri aiek galduta zeuden geure mendietan.

– Eta, aien ondorengoak?
– Ziur ez daki inork emendik aide egin ba'zuten, ala bertakoekin naastu ba'ziren; baña, gazteluak utsik gelditu ziran, basoak jan arte. Bear ba'da, euskaldunen odolean ain ugari, %45, dan zerki A, eurok utzitakoa izan liteke, zerki edo elemento A ori, Europa-Iparraldekoen berezitasuna bait-da. Dana dala, galdu ziran eta gero geure ipuiñetara pasa. Baña, ipuiñak denbora-aldiak naasten dauz geure garun-ganbaran eta orrelaxe daude alkarrekin naastean Mari eta Tartalo, Basajaun eta Jentillak, Mikelats eta Atarrabi, San Martin Txiki eta Deabrua, Sorgiñak eta Lamiak, Sanson eta Moroak; azkenik, Erroldan frankoa bera be bai (or dago Aralar mendian `Erroldan arria' izenakin ezagutzen dan Zutitako (Menhir) arri luze bat... Gizarteko Sikologia (Sicología Colectiva)'ko lege bat (La Ley de la Transposición) dabil bitartean. Lege orren bidez leporatzen zaizkioz Amezketako Fernando'ri orain bosteun urteko kontuak...

ARRINDA'TAR ANES

EUSKERAZALEAK (Euskerea erabiltearen aldeko Alkartea)

BATZAR NAGUSIA

Euskerazaleak Alkartean urteroko Batzar Nagusia egingo dau, bere Batzar-Etxea dan Larreategi'ko Kolon kalean, 14, 2n.. eskoian, urterillaren 28'n. Egunean, arratsaldeko 8'retan.

Batzar orretan urteko ekintza guztien barria emongo da. diru-arazo guztiak zeatz agertuko dira eta Alkartearen Batzordean I aldakuntzak egiteko aukerea eskiñiko da: Lendakari-ordea, idazkaria eta maiko bi aldatzeko. Bazkide guztiak dira eskubidedun autagaiak eskintzeko.

LENDAKARIAK

ASAMBLEA GENERAL

La Asociación EUSKERAZALEAK celebrará su Asamblea General Anual en su domicilio social en Colón de Larreategui, 14, 2.º d., el día 28 de enero de 1999. a las 20 h.

Como puntos del Orden del Día se establecen los siguientes: 1.- Exposición de actividades de 1998. 2.- Información económica referente al mismo año. 3.- Renovación de cargos de Vicepresidente, Secretario y dos vocales. Todo socio puede presentar candidaturas. 4.- Ruego y preguntas.

EL PRESIDENTE

JULITA BERROJALBIZ, GURE GOGOETAN

Aldi gogorak izan ziran 1937an, menperatuak izan ondoren, euzkotarrok bizi bear izan genduzan aldiak. Demokraziaren aurka jaso zan españatar gudarosteak oinperatu ginduzan, gerotxoago, Suiza eta Britania Aundia izan ezik, Europa aske guztiaren jabe egingo ziranen iragarpen bezela. España-ko gudaroste faziztek zapaldu euskuezan gure mendi, baserri eta uriak, gure izate eta askatasuna, eta kupida barik agertu ziran gal-tzaille giñanokaz. Euskeraz, gure izkuntzan mintzatzea bera be galazo euskuen, baita geure izenak erabiltea be. Euzkotarrok endekatzea eta ondatzea zala esan eitekean euren elburu bakarra.

Egoera orreri, duintasunez eta adoretu aurre egiteko hildurtia ezin izan eitekean, batez be gure Erriak, bere eskubide osoa ebanez, izaten jarraituko ba-eban. Gizonak espetxeak betetzen ebezen bitartean, gure emakumeek ikaragarrizko kemena erakutsiko eben, iñoiz be aztu ezin leitekena. Urte gogor, illun eta arriskutsuotan euren artean aurkitzen zan Julita Berrojalbiz, joan dan urriaren azkenengo igandean betiko agur egin deuskun emakume jator eta langille ausarta.

Burrukalari ezin ohea zan: berezietarikoa. Nekagatxa bere ekintzetan eta iraupentsua Erri onen aldeko asmoak jo-muga ebazana. Ezintasunik ikusten ez ebanetarikoa. Zoritxarrari bururik ez makurtzekoa. Eragozpen guztiak goituz, ezerk ez eban ikaratu. Bilbo-n, ixilpekoa ez zan leenengo ikastolako zuzendari izango zan emakume oldartsua. Berea zan erantzupen guztia. Emakume bate-na. Bere aurka jarri eitekezan diru-izunak, espetxeraz-zea, sasi-agintarien indarkerizko erasoak. Bera izan genduan Franco-ren diktaduraren arorik bizienean, "agintarien" aurrean erantzupen guztia leporatu eta bera arazo guztiek onartu ebazana.

Bere aalegiñak ez ziran alperrik izan. Lanaren emoi-tzak ioriak. Leenengo ikastolea auxe izan genduan, "Resurreccion Maria de Azkue", etorko ziran beste ikastola batzuen azi biurtu zana baita guztien eredia be. Orduan, euskerearen eta euskal izatearen aldeko ekin-tzetan sartuta ebizantetzako, pozzgarri, akullu eta lagun-garri beti izanaz.

Arratsaldeetan, ikastorduak amaituta gero, beste onu-rarik be ataraten eutsen Xabier Peña-k ikasgelei, euretan gure arbasoen izkuntzea do^{gun} euskerea irakasten eta

Euzkadi-rentzako bere garrantziari buruzko zabalkun-dea egiten.

Julita Berrojalbiz-ek ez eban mugatu bere ekintza ikastola onen arrisku gorriak leporatzen bakarrik. Bertoko andereño eta beste ikastola batzuetakoen gertakun-tzarako ardurea be artu eban, bere laguntza, irakasle bezela orretarako eskiñiz.

"Maistra" itzak, Julita-gaz artu eban iruditu leiteken zentzunik zabal eta gurena. Leenagoko abertzaleek, leendakaria nazan "Kultur Elkargo" oneri bere izena damotson gizonari izan eutsen maitasun, begirune eta gorespenagaz, berari deitzen eutsen "Maisua" k daukan esangurearen antzekoa.

Eragozpen itzelak, goitik beerako agindukeriak..., au da, ezbear eta lorraldi guztiak gora-beera, Julita Berro-jalbiz-en ekintzak, emoitz guriak izan dabez. Gaur, orduan baiño Bilbo argiagoa eta alaiagoa danean, baita aske eta politagoa be, uri-buru onetako umerik geienak euskeraz ikasten diarduenean, nasai esan leiteke here euskereaganako maitasun eta buruko-min guztiak, euren ondoren onak izan dabezela, garaille garatu dira-la.

Julita, Aiangiz-ko "Urruti" basetxean jaio zan eta bere amaren bularretik ikasi eban euskerea eta Euzkadi sakonetik maitatzen. Guk, Juli Urruti deitzen geun-tson beti. Nik baiño urte batzuk geiago izan ebazan arren, gazte denporetan alkarregaz amaika jolas, eleizal-den, erriko gazteen arte egin genduan. Berarizko adiski-detasun onak alkartzen ginduzan, beraz, bere azken-agurrak, aide askotatik samintzen gaitu gaur.

Eta orain, gure artean ez daukagunean, emen esanak eta sakon nabaitzen doguzanak, ez dirala esango neuke geien eskertu bear geunskiozanak. Bereganako zorrik eta aundiena, berak emon deuskun eredia dalako. Bere eredu garbi, aberats eta sakona.

Goian bego Julita, Juli Urruti.

ANTON AURRE ELORRIETA
Sabino Arana Kultur Elkargo-ko Leendakaria.
Bilbo, 1998ko Abenduak 2

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

ARRESE BEITIA OLERKARIA

Gaur, 1.998'ko Euskal Asteko lenengo egun onetan, Felipe Arrese Beitia olerkariaren nostasun eta zelakotasuna aztertuko dot.

Olerkari bikain au 1.841 urtean Otxandiano'n jaio zan Loraila'ren 25'garrenean, au da, Bizkaia bere Batzarrak Gernika'ko areitzpean oraindiño ospatzen ebazan garaian.

Arrese'ren gurasoak Andres eta Tomasa izan ziran, eta izandako lau seme alabetatik bat bakarrik adiñekoa billakatu zan.

Otxandiano'ko Artekale 26'gnean jaio zan.

16 urtekoa zala, eta bere marrazkilaritzarako eta zurlanetarako zaletasuna ikusirik, irudigille-lanbidea ikasi egian Gazteizera bialdu eben. eta irudigille baten lantegian ziarduan iru erreal egunean irabazten ebazala, irauteko naikoa zana.

Marcos Ordozgoiti'ren gau-marrazki ikastolara joaten zan. Aurrerapen andiak egiñik, lenengo saria lortu eban, eta augaitik ikaskide batzuk bekaitzez arrika egin eutsoen eta zauritua izan zan.

Onezkero, Felipe Arrese'k bere ikasketak amaitutzat emotea erabagirik, 18 urtekoa zala, here aitaren lantegian jardutea aukeratu eban.

Emen, Santuen irudiak, aldarak, eta gurutzak lantzen zituan.

1.871 urtean, 30 urtekoa zala Angela Bengoa'rekin ezkondu zan. Sei seme-alaba izan ebezan, baiña bi soillik adiñeko gertatu ziran: Purificacion eta Lucio.

Otxandiano'ko bere lantegian len esandako lanak egiñez gaiñera, erriko mutiko argiai bere lanbidea erakusten eutsen.

Arrese'ren etxea kristiñau sendi bateko eredu zana, bear eben guztiai sorosten eutsela.

Senar-emazteak oso Jaungoikozaleak ziran. Felipe'k egunoro meza cntzuten eban.

24 urteko zala, here lenengo olerkia argitaratu eban.

1.874 urtean, Tolosa'n argitaratu eban elizti edo gramatika bat, Astigarraga'ren gipuzkerazko iztegia, bizkaieraz ipinia.

1.879 urtean Abbadie Jaunaren eta Iruña'ko "Asociación Euskara" eritxon bazkunak atondutako olerki-leiaketan Elizondon ospatu zana, "Ama Euskeriari azken Agurrak" Arrese'ren olerkiak lenengo saria irabazi eban. Olerkari onek jaritsitako sariak, ogei bat izan ziran, bere elerti-bizitzari.

1.894 urtean Angela, bere emaztea il jakon, eta lau ta zortzi urteko seme-alabak zaintzeko, Gabriela Iturrieta'rekin bigarrenez ezkondu zan.

1.901 urtean olerki-txorta bat Ramon de la Sota'ren laguntzapean argitaratzen dau. Urte onetan bertan, euskal idazkereari buruz jarduteko, Endaia'ko batzarrean tartekoa da, eta beste batzuen artean. Arturo Kanpion. Juan Iturralde y Suit, Estanislao Aranzadi, Sabino de Arana, eta Azkue, izan ziran tarteko.

Felipe Arrese Beitia'ren olerkiak irakurtean, gauza bi nabariak agertzen dira: Jaungoiko'ganako eta euskerearekiko maitasun bizi ta sakona.

Bere olerkaritza ugarian maitasun bi oneik nonai agertzen dira bein eta barriro.

Negar egiten dau Karlatar gudeen osteko gure askatasunen galpenak Euzkadi'n ekarri eutsan kaltea, eta negar egiten dau bein eta barriro, Gernika'ko areitzpean garai baten ospatzen ziran gure batzarrak, orain galduta erdeltasunaren aide.

Negar egiten dau gaztelapean euskerearen atzerakada, eta azken baten, bere karlatartasuna abertzaletasuna biurtuta, goratzen dau Arana Goiri tar Sabiñ'ek aberrira ekarri eban itxarkunde biziagaitik, eta bere lengo negarrak orain atsegin bizia biurtuta, aberria abesten dau itxaropena barriztuaz.

1.903 urtean geisotasun batek jotzen dau, eta lan-eziñak egoera larria ekarri eutsan. Diruarekiko beti ardurabakoa izan zanez, lagun-talde batek illean sari bat emotea erabagi eban, bere gatxa arindu ekion. Iru Urtebete geiago iraun eban, 1906 urtean Urtarrilla'ren 19'gnean il arte, 64 urteko zala gure elertiaren gizaundi au, olerkaritza ugari eta santugintza bikaiña atzean utzirik. Eta gaur, Euskal Astea'ri asiera emonez, gomuta bat merezi dauala uste izanik, aren irudi erraldoiaren alde lan au egitea bururatu yat.

Eta asti gitxi dodan lez bere olerkien ugartasun eta bikaintasuna ordu bete baten adierazoteko, bestetan egin dodan lez, nire ustez eredugarrienak diran gitxi batzuen zatiak zuen ezaguerara ipiñiko dautsuedaz.

Aita Santi Onaindia'k, Arrese'ren olerkaritza bederatziz zatitan banatzen dau, eta neuk be, sailkapen onei jarraituko dautsat: Kantu errikoak - Lirika kantuak - Gora kantuak Amalaukoak - Eliz kantak - Alegiak - Ipuñiak - Irakurgaiak Erderatik euskeratuak.

Asi gaitezen ba, Kantu Errikoiaren sailletik.

1.- Kantu errikoiak

BIZI DA AMA EUSKERA

Iru gaubela amari egifiaz
Nenguan arbolapian,
Neure begiak liortu ezinda
Bere buruko zapian;
Jaunak ez bleust gorde biz+
Ainbeste miñen erdian,
Bakezko lotan arimau ta
Gorputza neukan obiaX.

EUSKAL ASTEA

Eguzki ederrak ikuste ez arren
Negargan-i au larrian
Odei illun bat ipiñi eban
Arpegiaren aurrian;
Baltzez jantzirik agertu oi zan
Damuz goizian goizian
Gorde illargia, lotsaz izarrak
Gabaz azaltzen ez ziran.
*

Baiña nasaitu, atsedean zaite,
Seme maitea, ez da il ama;
Ume gaiztuen atsekabiak
Geisotu dabe orrela;
Orain guztiek negar dabe egin
Ezagaturik okerra,
Il dalakuan beti betiko,
Ama euskera laztana.

Negar dabe egin Bizkaiak eta
Araba ta Gipuzkoak
Negar dabe egin Naparrak eta
Euskaldun Erantziakuak;
Orain arteko uts egitiak
Daukazuez parkatuak,
Baldin bazare aurrera izaten
Anaiok alkar artuak
**

Neure anaiak, bat izan beti
Euskeldun siñiskeretan;
Bat izan geure uste, eretxi,
Gogo eta asmuetan;
Fede bizi bat baldin badogu
Biotz eta arimetan,
Bakez oraindik biziko gara
Mendi, atx eta ibarretan.

Ona emen beste olerki bat.

NEGUKO GAU IZUGARRI BAT

Negu egun laburrian bein
Gal dunk mendi artian,
Nai ez nebala aurkitu nintzan
Itxasuaren aurrian;
Ezkutau jatan eguzkia ta
Nun nengoan ez nekian,
Gaba egiten geratu nintzan
Bertan atx zulo batian .

Illunen andiz gau erdirantza
Ez nekusa^A lur sorua,
Begiak tora jaso nituzan
Eta ain gitxi zerua;
Larritu nintzan nire Errian
Jarri ete zan Linbua,
Edo gelditu neu ete nintzan
Begietaatik itsua.
**

Nun gorde ziñan egun ederra...?
N un ezkutau Eguzkia...?
Nun desagertu zaree, izarrak...?
Nun ostendu Illargia...?
Eta azkenez, nun estaldu zu,
Ni jaio nintzan Erria...?
Zuri begira zorutzen zana
Lenago mundu guztia...?

O! neure Erri aukeratua
Millaka errien artean,
Doe askogaz jantzia zara
Ariman ta gorputzian;
Adimentuan zur ta argia,
Bizi ta zailla Janian,
Alperkeriak ez dau lekurik
Ez beintzat zure lurrian
*y,

Ona emen beste bat

GURE BANDERA

(1888 urtean Gernikan saritua)

Anboto dakust triste, bai, triste,
Negarrez Oiz mendia
Euskaldun goiak danak diñoste
Ilten da zarra guztia;
Il zan il Leio, il zan L ekobide
Il zan, il zan Jaun Zuria,
Il ziran gure gizon andiak,
Ia il Euskal-erria;
Alan ezpada esan daiala
Arbola orrek egi.

Aretx maitea, esan egizu
Euskeraz berba egiñik,
Iñoiz aurkitu ete dan lur au
Taiu onetan geisorik.
Autortu zaite zeu bere egon
Bazara orren sikurik,
Bazara egon iñoiz orrelan
Ezkurrik emon eziñik,
Urte askogaz ukatu eta
Bazengoz legez zarturik...?

O euskaldunen Lauburu zarra...!
Gatoz zu adoretara;
Gatoz o aretx illezgarria...!
Zure kerizpe onetara,
Arerioak jakin dagie
Gatozan ona zertara,
Gatozalako euskaldun utsak
Emen txe batzera bada,
Ots egiteko bizi dedilla
Gure arbola laztan a.

Eta ona emen beste bat

GURE ARETXAREN KERIZPEA.

Egiñagaitik Mundu
Guztia aratu,
Au lako kerizperik
Baiña, non billatu...?
Nik beintzat nai ta nai ez
Bear dot autortu
Kanaan euskaldunean
Gaur nazala sartu
Eta biotz au zelan
Ain jatan zatitu,
Ez dakit bizitzeaz
Zelan dan gelditu

Bere azpian barriz
Zeinbat gizalditan
Batu ziran asabak
Euren legegintzan;
Eta nik gaurkoagaz
Egon naz birritan
Deitzera euren seme
Nai dogula izan,
Eta aurrera bere
Urtero bai bertan
Gura neuke anaiok
Alkartu gaitez.

2.- Lirika-kantuak

Orain ekiogun Lirika-saillari

UDA BARRIARI

Kantatu gura neuke gauza bat,
Kantatu, noa egitera,
kan tatu, baiño nok al leikean
kantatu, gauza ain ederra...?
Kantatu egidazu, biotza,
kantatu, zuk bere, mingailia
kantari aurrean dozulako
kantetan gaur sortitza dana.

Kantetan , basoetan artzaiña,
kantetan, gaur jorik txistua,
kantetan, ez dedilla biurto
barriro, ain negu gaiztua.
Kantetan dabe zar ta gaztiak,
kantetan gaur dago pobria
kantetan, erdu ordu onean,
zatoz, bai, o uda barria...!

Ona emen beste bat.

BAKEA

Lurrean ezer beste gauzarik
Bakeak ez dau bardingarririk;
Naiz izan urre gorria,
Baldin bagagoz gerran nasturik
Etxaku ain pozkarria.

Gerra denporan bildurra danak
Dauke gitxi zein asko daukanak;
Danik pobreena barriz,
Bake denporan bear ta lana
Dauka kontentuz beterik
* *

Errege bere dabil artega,
Galdu bajako bake ederra,
Gau eta egun asmuana,
Nun dik ekarri lengo senera
Zoriona erreñuan.

Baiña Erria bake-bakean
Gerra bagarik dagonean,
Pobre txabolan bere
Bizi da atsegin bete betean,
Izan ez arren Errege.

Eta ona emen beste bat.

AMA BATEN SENTIMENTUA

(Ardiak egin pekatu
Baiña bildotsak pagatu)

Laster mutiltzen da larrosa bat
Zotz bat bereala ausi,
Kristal bat brintzau golpeaz errez,
Argi bat putzaz itzali:
Modu berean baten ain laster
Biotza jatan erdi bi.
Uste bagako barri samin bat
Jatalako eldu neuroni.

Egazti batek maitetuten dau
Txit asko bere abia,
Laiñoak legez baita lurrinak
Laztandu oi dabe goia:
Itxas orratzak ipar aldea,
Arriak bere ertegia,
Alantxe maite nik bere neban
Seme bat maitegarria.

Zorioneko edo txarreko,
Gerra bat emen sortu zan,
Zenbat ama on seme bagarik
Gaizki ipiñi ginduzan...!
Garaitza zala kanpaiak joaz

Jolasa ugari bazan,
Baiña ez dakit biamonean
Zelan miñez il ez nintzan.
* * *

Seme bat euki, bera soldadu
Eroan eusten gerrara;

Orduan etzan beste nausirik
Agintari zan indarra;
Eta gaur barriz zartzarorako
Dot semearen bearra;
Baiña niri a kendu eustanak
Ez daust gozotzen negarra.

Euskal-errian esaera au
Antxiñakoa daukagu,
Ardiak egin pekatu eta
Bildotsak bear pagatu.
Esakune au asmau ebanak
Ez eban ezer erratu:
Ama gaxo au egia orren
Ona emen bat testigu.

Ona emen beste olerki bat.

ERRETXIROLARI

Kantau egizu, erretxiñola
Bakartadea.
Erramu gallur berde berdean
Zarealako txori guztien
Zu erregea,
Ondo kantetan paregabea;
Kantau egizu zoragarritz
Txorrotxioa,
Eztia baiño gozoagoa,
Berarizkoa,
Naigabez eta atsekabetan
Aurkitzen dana
Poztuten dalako zuregaz bada.
* * *

Erretxiñola biotzekua,
Jasoizu gora zure kantua
Eta alabau egizu beti
Zuk Jaungokua.
Eta lotsatu gizon sastua
Dirudiana eskuz ta agoz
Demoniva.

Olerkariaren alabatxua Maria Pilartxo# ii da esanez:
"Zerura joan naiago, olatu baiño". Ona emen Arrest, Bei-
tiaren biotzaren miña olerki onetan,

EUSKAL ASTEA

AGUR UME

Ez al nozue gogortzat, arren iñok eukiko;
Ez nagizue , atx arrizkotzat iñok bota:
Ez nagiala zentzun bagakaz iñok bardindu,
Nire biotz au erdibiturik gaur dago-ta.

Ez daustazue ausaz maXkorik gaur ikusiko,
Begiok malkoz dodazalako gorriturik,
Ain luzaroan nire biofzak eukan patifia,
Dalako oso ia gelditu agorturik.

Nok esan dagike, baiña, beraren kordel meietan
Amaitu dala soñututeko indar dana,
Iturritxo bat mututu oi dan erara bardin
Agorrillean sikatutean urik baga...?

Zure gorputza badago bere lurperatuta,
Egunen baten aterako ain ederrik,
Azuzena ta lirio zuri-zuriak baiño
Zuriago ta iñon orbantxo bat bagerik.

Agur umetxu, ikusi arte ortxe zeruan:
Agur, agur bai, gelditzen gara gu lurrean;
Agur, biotzak zeren eroan zeuk deuskuzuan,
Agur, ume, guk pozik ez dogu emen bean.

Eta ona emen, olerkariaren atsekabea, Anjela, bere emaztea
il yakonean.

ANJELA

Ez dot tintarik edo ur baltzik bapere bear,
Begietaik odola darit gaur naikoa;
Utsik bear dot paper illun ta baita luma bat
Labañearen aldean ondo zorrortua.

Gutziz biziro gaur eskribidu dagistan berak
Garbiro nire barruan dana iragoten
Nire damu au zelakoa dan mundu guztian,
Malko gorriaz ipiñi eta leidu daitegXR

Sabel au daukat laba legez gori-goritan
Garrak kanpora urten nai eta ezin urten;
Ok egiten daust eztarrian ta larriak legez
Suzko boladak asi bearko dot botaten.

Urten zaiteze nire agotik, suzko errekan
Urten zaiteze estuen estuz enadin il;
Urten zaiteze, kolkoan zuek zaituedala,
Ito gura, ta ito eziñik, ai gaur nabil...'

Urten zaiteze zuen beroak zergaitik naukan,
Topin bat legez gar-gar-gar oso irakiten;
Alan basoan zelan etxean, ain gitxi oian,
Atseden piskat gozetan bere ez deust ixten

Gorde naizu zeuk, Jauna, betseiña oi dan erara
Ezkutau naizu zuk, zeure beso zabalagaz;
Jarri n aizu zuk, zeuk gura dozun orduren baten,
Goiko Errian gozau zaidazan Anjelagaz.

Antxe bai pozik emongo neukez ordu osoak
Gogoratuten nik Anjelaren birtuteak;
An bai, egunak emongo neukez irakurriaz,
An bai, egunak emongo neukez irakurriaz,
Itxi eustazan gomutagarri ain luzeak...!

An bai, beraren espirituak ninduke poztu
Egingo gabaz lotan nagola amesetan;
Agertuagaz edurra baiño zuriagorik.
Kontauko leuskit zelan bizi dan zeruetan...!

3.- Gora-Kantuak

Eta orain, Gora-kantuai datorkie txandea

MANTEROLAREN ERIOTZEA

Jatsi zakidaz euskaldun musa, gozo ezitia,
Edo jaso neu orain Parnaso alderontz
Soflutu daidan Aopolo'k emon eustan liria,
Negar egiñaz euskaldun baten eriotza.

Negar artean kantau dagidan bere bizia,
Kantau dagidan jaditxi eban garaipena,
Kantau dagidan, orain gozetan daben gloria,
Kantau dagidan bere betiko oroipena.

Kantau dagidan, umantak bizi arren goietan,
Kantau dagidan, baita dirala beian bizi,
Kantau dagidan, naiz lurretan ta, naiz zeruetan,
Toki bietan oi deuskuela egin argi.

Kantau dagidan, baten argia eldu jatala,
Baten errañu, saeta zorrotz bat lakua;
Osterantzean, zelan aurkitu nindeke bada,
Berez gogora datorkidala itz neurtua...?

O Manterola...! deiez dagotzu ama euskera.
eskatzen deutsu zeru altura anparua,
Bialdu arren egiozu gaur ortik lurrera,
Osagarri bat egoki eta adjutua

Bialdu-yozu ortik indar ta sendotasuna,
Onek lurrean munduak aña iraun daian,
Gorde daiogun guk bere zure semetasuna
Maitatu daigun zure antzera beti leial.

Ona emen beste bat.

KARIDADEKO AIZPA BATI

Turuta otsak gerra soñuaz
Biotzak ditu goibeltzen
Mendi gaiñeko sutunpaz berriz
Dardaraz lurra ipintzen;
Turmoi antzeko dunbots artetik
Bonba danean irtetzen,
Jende andia arkitutzen dan
Erdian bada erortzen;
Lertzen danean here pusketak
Nola dirade banatzen,
O! zeinbat gizon duen zauritzen,
Zenbat illotzik lagatzen...!

Otso ta legoi biurturikan
Jazarten dabiltz anaiak,
Diruditela elkarrentzako
Txakur, katu. ta etsaiak.
Dierri baten jaiogaitik.
An sortutako ezbaiak
Amorratutzen nola ditden
Ipiñi beren erraiak,
Alde bitara jarririk baten
Len lagun ziran galaiak,
Orain dabiltzaz odolez loitzen
Mendiak. nola zelaiak

O! emakume, aingeru baten
Pare zerana munduan...!
Iñork badauka lekuri nere
Biotzean zein goguan,
Zuk dezu-ta, zeren zorutzen
Nazun alako moduan,
Aro eder bat jantzi nai nizun
Ejorik nere kantuan;
Baiña, laburra neu naizen
Etorki ta adimentuan,
Argiagoren batek bearko
dizu ipiñi buruan.

4.- Amalaukoak

Orain amaluakoai eutsiko dautsegu.

TRUEBA'REN ERIOTZEAN

Muturik daukaguz gaur koplariak
Ez ditut entzuten euren bertsuak,
Ixillik artzainean alboka zoliak,
Danbolin, txistu ta txilibituak.

Nun dabez irrintzak bideko koplariak...?
Nun diran gazteen bal. ujujuak...?
Bide, baso, solo, kale ta etxaldiak
Orain badakustaz oso mutuak...?

Errotak ez dabe otsik gaur egiten,
Ez dantzut oletan gabi soñurik.
Euskal izatea , ai! jat iruditzen,

Dagoala miñez naibageturik;
Bere kantaria jakolako ilten,
Ez dauka penia baño besterik...!

Eta orain beste olerki bat.

NEURE ADISKIDE BATI

Esker oneko izan-gureak deust eragiten
Gomutagarri txiki au zure izenean:
Zeñegaz dodan neure damua erakutsiten
Dala andia, il zareala jakitean.

Zure alabak gau eta egun negar egiten
ase ezinda dagoz umezurtz aurkitzean;
O! Nik baneki Iuma onegaz iragarriten,
Ze pena miña zu бага dauken biotzean...!

Eriotzeak zelan ez eutsun gura parkatu,
Etorri jatzun korañegaz oe aurrera;
Nok emoniko golpeaz ziran otzik geratu,

Ez biurtzeko berorik iñoiz gorputzera;
Baiña arimea zanean egin ortik azkatu,
Irrada baten igo zan zeru ederrera.

5.- Eleiz-Kantak

Eta jarraian eleiz kantai lekua emongo dautsegu

JESUS'I JAIOTEAN

Kanarioaren boz gozoa baiño
Baneuka leunago nik berba-otsa
Edegiko neukez ezpanok bertatik,
Agertzeko, Jauna, zuri gaur poza.

Fedeagaz ziur sortaldean dakust
Egun barri baten goigorritxo,
Gabagaz igesi badoa illuna,
Eguzki orren da bildur lañoa.
* * *

Itxasoak perlak, iturriak urak,
Egunak argia, usaña lorak,
Txoriak txioa, ban-ea arpegiak,
Ta aizeak Jesus'i emon laztanak

EUSKAL ASTEA

Ona emen beste bat.

BERRIOTXOA MARTIRIARI

Mutiltxo ziñanetik zenduan agiri
Zeruak nai eutzula guztiz asko zuri;
Zeurea zifialako otzan eta garbi,
Balentin, il ziñean azkenez martiri.

Asieratik ziñan eskolan argia,
ikastera emona, aituten zolia;
Ikasiai gomutan eusten azkarria
Ontasunean barriz danen nagusia.

Osasuntsu zentozan baita gorputzean
Osasuntsu arima guztiz ederrean;
Erregu egiteko Jesusen aurrean,
Illunez goiz gazterik jagi oi ziñean.

Azkenez zeuri bere ebagi burua
Eutzuen idunetik, Obispo Santua;
Zeruan gozetako mitra obagua,
eta martire palma eder betikua.

O! Apostolu andi ta Konfesorea,
Martiri santu barri, euskaldun ondrea,
Lagundu egiguzu asaben fedea
Il ez, ta biztu dedin gure arbolea.

Eta ona emen beste bat

BIZKAITARRAK IZIARKO ERROMERIAN KANTETAKO

Ondarroatik Iziarrera
Siñispen bizi bategaz
Amaganako amudioak
Ixioturik garuaz.
Itxas gizonak Debarantz duaz
Batel ederren ganetan,
Liorrekuak onaz aldraka
Ama laztana billetan
* * *

Agur geure biotzak
Zuri eskiñirik,
Bialdu gaizuz Ama
Gaur bedeinkaturik.

Lurrian gura dogu
Zure ume izan,
Zeruan gero beti
Ikusi zaiguzan.

6.- Alegiak

Orain alegien txandea dator.

PERU ERRENA ETA MUTIL GAIZTO BAT

Erren on bati mutil txar batek,
Lotsa baga
Egin ei eutsan alan burla:
Oinkada zelan bota bai ak
Kontetan deutsa besteak bat;
Urrengokoan diñotsa bi,
Eta bestean barriz iru;
Laugarreanean, barre karkaxaz,
Errena da gure Peru

Onek txit aserratua,
Jaurti eutsan makulua;
Nekez oin bakar gaiñean
Gelditurik batbatean,
Peru tristeak dirautso:
"Egin ez daista geiago
Burlarik niri;
Tunda bat iri
Emon nai izateak ni
Oin baten n ajaukak larri"

Eta ona emen beste bat.

ONTZIA

Esperantza barriz puztuta,
Zoakuz zoroa, pozez urera...?
Biurtu zakiguz, biurtu
Urten egin dozun lekura atzera.

Ez dozu gomutan lengoan.
Estutu zinduzan ekatx gaiztoa...?
Fortuna atzean barriro,
Zoakuz orrelan, ontzi gaixoa...?

Ondarrezko menditzarrakaz
Beterik dagotzu urezko landa;
Nai ta ez damutuko jatzu
Bazoaz jarraitzen aurrera bada.
* * *

Nok librau arrisku artatik...?
Nok poztu orduan ontzi triste...?
Laguntzen ez balitza jatsi
Zerutik kristauen gordetzaillea...?

Jatsi zan guztioean Ama,
Jatsi zan Dontzella Ama Maria
Nok daukan bere otsefletan
Kontu ta ardura andia.

Gordeizu modu berborean
O Ama euskaldun...! gure ontzia
Ekatzex aurkitzen dalako,
Barru eta kanpo dana josia.

Ez dakust iñon pozgarririk,
ezpada zuregan, Ama maitea;
Bakarrik zu zara ostarku,
Daikezuna jatsi zarren bakea.

7. Ipuñak

Orain ekin dagiogun Ipuñen saldoari

AURREKO FAROLAK

—Egiten dozulako
Limosna geiegi,
Peru, esan nai deutsut
Eretxi bat garbi.
Obeto etzenduke

Itxi azkenean
Zabaltzeko, mundutik
Zeu zoazenean...?

—Mari, nik ez dot gura
Argi illunean
Egin daiden atzetik
Noiala bidean;
Izan daitezana nai dot
Oraingo limosnak,
Mundutik noianean
Aurreko farolak.

Ona emen beste bat.

JUSTO MARTIREA

Justo il eta zuzen zerko atera
Igo eban bertatik oles egitera,
Eta leio txikira urtenik San Pedrok
Itaundu eutsan laster
Zer eskatuten dok?
—Zer eskatuten dodan? barrura sartzea;
Arren zabaldu begit mesedez atea.
—Au zabalduerako bear aut ikusi,
Zerurik ete duan beian irabazi;
Ezkondua izan az ala mutil zarra?
—Ezkondua ta euki dot andrea txarra.
—Zetarikoa izan dok bada andrea
—Alper, zital, da ordi parerik bagea.
—Urte askotan egin az beragaz bizi?
—Berrogei bat beñik-bein egin doguz nasi.
—Ola! berrogei urte andra ain txarragaz,
Ez dok gitxi eroan bitzitzan beragaz.
Ator ordu onean, ator gizajoa;
Edozein andra badok purgatoriva,
Bajakiat irea zala Inpernua,

Ta ondo irapazi duala zerua:
Duda barik Iaz Justo Martirea,
Aspaldian bajuat ire entzuerea;
Eutso koroï au eta palma bat andia,
Ara an goian daukak jarteko aulkia,
Berrogei urte egin arren beian gaizki
Zeruan bizi az orain ondo beti.
Koroiaz da palmeaz an ei dago Justo
Andreaz eroana milloë bat susto.

8.— Irakurgaiak

Orain irakurgaien eredu bi.

SEMEAREN BIURREREA

Banator, ama, banator, ama
Gerratik sano etxera,
Pozaren pozaz laztandu eta
Zuri esturak kentzera;
Gerra egin dot garaitu arte
Soldadu onak bezela,
Amar kurutzaz kapote zar au
Ikusidazu bestela.

Eskuplario onexek ama,
Bizirik nauka munduan,
Beronegaitik etxera nator
Ikusten nozun moduan;
Bala batek bein bete-betean
Bular au jote orduan,
Laprast ein eustan, zergaitik balen
Kontra Mariak al dauan.

Irudi onek ein euskulako
Mira pare bagia,
Beroni utsik zor dauzagu gaur
Dogun atsegin andia.
Orduan amak beso biakin
Baturik bere semia,
Ots egin eban: "Bizi dedilla
Aranzazu'ko Maria"

ARRATIAR SOLDADU BATEN KUBA'KO AMESA

Egun danetan oi dan legetxe
Illunkera zan eldu,
Ta eguzkia mendi ostean
Egin zan atzo estaldu;
Mantu loratsu urdin bat gabak
Eban zeruan zabaldu,
Gure tronpetak erretrete
Jo ta zirean ixildu.

Milla soldadu gitxieneitik
Gengozan zelai batean,
Oso nekauta asazkau nairik
Danok etzunda lurean;
Batzuk bildurrez areriorik

EUSKAL ASTEA

Ete ebillan aurrean,
Arri bat legez ni barriz lotan
Nengoan bedar artean.

Udagoia zan ta geunkazan
Galantak arto-soloak,
Eurai begira aita ta ama
Egozan kokolotuak;
Ni etortea gerratik euken
Loteriatzat gaixoak.
O' baiña laster amesa bota
Eragin eustan sustoak.

Esne-esnetan neragoiala
Alako ames dontsuan,
Dianaren sonu garratza
Sarturik biotz barruan,
Damuz gomutau eragin eustan
Kuba'n ni kelan nengoan,
Eta ez gure ardiak zaintzen
Al tu'go larra gozoan.

Eta azkenerako itxi dot neure eritxiz bitxi eder au, of erka-
ri bat goiko mailletara eroateko gai dana. Entzun egizue:

ARITZARI

Euskaldun jaio nintzan,
Ta euskaldun azi,
Euskaraz eustalako
Amak erakutsi:
Euskara laztan maite,
Zabiltz nigaz beti,
Euskara il ezkeru
Ez dot gura bizi.

Euskaldun neban ama,
Ta euskaldun aita,
Euskal dun neu bere naz,
Eurak legez baita;
Euskaldun il zirean,
Euskaldun bizita,
Euskaldun arbolea
Zutirik itxita.

Il zan aren Arbola
Guk dogu gaztea,
Izango al dau onek
Osasun luzea;
Biztu dakigun gure
Lege zar maitea,
Zeiñen alde nai neuken
Emon bizitzea
Eriotza gozoa
Litzake benetan,
Iltea arbolagaitik
Gure mendietan;
Asko il ziralako
Gizaldi zarretan
Asabak bizi ziran
Libre lur onetan.

Amaitzera noa, baiña orren aurretik, edestu gura dau-
tsuet, bere olerkari ta seme argiaganako Otxandiano erria-
ren jokabidea.

Arrese Beitia il zanean, Otxandiano erriak goratzarre
maitetzat, Udaletxearen aurrean d,agoan enparantzan, idaz-
ki au ipiñi eban: "Arrese Beitia tar Pilipa'ren Zeia". Primo
de Rivera aldian, España'ko Jaurlaritzak idazkun ori ken-
tzea agindu eban.

1.930 urteko Iraitla'ren 20ganean, laido ori ezabatzeko
Otxandiano erriak bere seme andiari goratzarre edo
goraldi bat egin eutsan, Meza Nagusi bat ospatuz; gero
Arrese'ren illobian il-otoi bat esan eben, eta gero, enparan-
tzan, lengo idazkuna ipiñi zan barriro, eta iai andi batatz
ospakizuna amaitu zan.

1.936 urteko gure gudan, Arrese Beitia'ren oroigarria,
fran kotarrek kendu eben, "Plaza de España" izetaz ordeztu-
tuz. Eta berrogei urte geroago, auteskudeak ospatu zira-
nean, Otxandiano'n sortutako Udal-batz abertzaleak, Arre-
se'ren senitartekoen eta adiskideen eskaerai jaramon egin
barik, here semearen oroitza zapalduz, lengo "Plaza de
España", "Plaza Nagausi/ Plaza Mayor" izendatu eban.

Orra or eusko udal baten jokabide lotsagarria. Arbasoen
an ditasuna goratzen ez dakienak guztien gitxiespena mere-
zi dau, eta neuk au guztien aurrean salatu gura dot.

Besterik ez, Jaun-Andreok.

ZUBIRI'TAR IÑAKI

ARRESE BEITIAREN OMENEZ

ZUGATZ TANTAIK EDERRAK DIRA
MENDIAREN BABESEAN
IZADI DANA INDARTUAGAZ
GIZONAREN OMENEAN:
BASO TA MENDI URI TA ZELAI
IZADIAREN GAINEAN
LORA EDERRAK DIRUDIELA
BIZJAREN MAGALEAN

ARGIZ TA GARREZ AGERTU ZIÑAN
EUSKALERRI EDERREAN
ZURE ABOTSEZ TA JAKITURIZ
GORAMEN AUNDI ARTEAN;
GORBEA ZEUNKAN ZEURI ENTZUTEN
MAITASIJN EDERRENEAN
ZURE ABOTSA MEZULARI LEZ
ZABALDU ZENDUN LURREAN

EUSKALERRIKO IZAR BAT ZARA
ZERU-URDIÑAREN AZPIAN
BERTSO EDERREZ ZABALDU ZENDUN
JAKITURIA LURRIAN;
EUZKO GOGOEA ESNATUAGAZ
ZURE ERRITARREN ARTIAN
GORA ARRESE BERTSOLARIA
EUSKALDUNEN IZENIAN

PAULIN

LAUBURUA

Gabonak eta Lauburua

- Zer dauke alkarregaz zer ikusi?
- Biak dira garai-alde bateko ikurrak.
- Zer garai eta zer ikur?
- Lauburua eguzkiaren ikurra da eta Gabonak eguzkiaren jaiotzaren ikurra.
- Txotxo, orrelakorik ez esan kristiñau-errian.
- Jesus'en jaiotzarena da, baña batzuek esaten dabenez, asieran, eguzkiaren jaiotza ospatzen zan Gabon-egun orretan.
- Eta, ori esan liteke?
- Ala izan ba'zan, bai. Neuk usten dot alan izango zala: eguzkia motelduta dabil garai orretan eta goruntz asten danean, orduan da eguzkiaren jaiotza eta jaiotza orretan laguntzeko, pizten ziran suak, eguzkia berotzeko.
- Eguzkia al zan ba jainko?
- Euskalduna, beste erri askoren lez, koba-zuloe-tan bizi zalarik, aztikeriak egiten ebazan Santimami-ñe'ren antzeko zenbait leizatan. Andik irtenda gero, eiztaria artzai egin zanean, eguzki eta euriara jaso ebazan beure begiak, ganaduen belarrak bi oneik bear ebazalako, euria eta eguzkia.
- Baña, lauburuak nundik dau zer ikusirik eguzkia-rekin?
- Lauburua Europatik guregana etorritako ario-erriek ekarri eben eta guri erakutsi eguzkiaren ikur lez.
- Eta, geuk onartu.
- Ba, orixe.
- Baña, Jesus'en jaiotzarekin zer dau antzekorik?
- Jesus jaio zan gurasoek Udaletxera, izena emoten, joan bearrik ez ebenean; eta, gañera, jendeak zenbat urte eukien be ez zekienean. Gaur bertan be mundu zabalean orrelako erritar asko bizi da.
- Bai, irugarren munduan.


- Amen bertan be, aurkitu leiz orrelakoak.
- Baña, Apostoluek eta ingurkoek jakingo eben noiz jaio zan Jesus...
- Aiek zekiena da noiz agertu zan Jesus euren artean; noiz erail eben judutarrek eta noiz piztu zan. Ez eukien astirik beste gauzok pentsateko be.
- Eta, kristiñauak noiz asi ziran onelako pentsaketan?
- Bosteun urte pasata gero.
- Garai ederrean!
- Praille bat izan zan Jesus'en jaiotza noizkoa ote zan aztertzen asi zana.
- Eta, zer atera eban garbi?
- Gaurkotu ezkerro, 1997'garren urtean jaio zala.
- Eta, historiagilleak konforme daude orregaz?
- Gutxi gora-beera, bai. Batzuek iru edo lau urte-ren aldea ataraten dabe, zaarrago.
- Onelako komedietan ba'dabiltza urtea asmatzeko, nola jakingo dabe eguna?
- Orixe, ba.
- Eta, nolan aukeratu eben eguzkiaren jaiot-eguna, Jesus'entzako?
- Jesus'en ama, aurdun zegoen Isabel bere langu-siñaren gana joan zanean, onen senar Zakarias'ek, `Benedictus' deritzan berso-aldia bota eban, tarte batean Jesus'eri buruz, onela esanaz: "Gure Jainkoa'ren erri errukitsuetatik agertu zaigu GOIZ-EGUZKIA gañetatik illunpetan eta erio-itzalean daudenei argi egitera...".
- Ortik edo, gure Eguzkia esan oi zaio Jesus'eri, eta bere jaiotza ospatzeko egunik egokiena, eguzkia luzatzen asten dan eguna, iruditu zitzaien. Eta, arrezkeroz amen gabiltza urteoro Gabonetan Jesus'en jaiotza ospatzen.

ANES (1998)



Eusko Jaurlaritzaren Laguntzaz.


Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.



EUSMIEZIUZZX

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa

200 pezeta

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO